



## Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2018/06/19 Udaletxean 18.30-20:00



### Gaurkoan bildu gara,

- Jose Ignacio Mendizabal (Herri plataforma)
- Eburne Huesa (Landarlan)
- Juan Ignacio Alonso (Ordizia Orain)
- Adur Ezenarro (Bildu)
- Joseba Aranburu (EAJ)
- Rosa Aurkia (Ingurumen teknikaria)

Bere ez egotea justifikatu du: Iñaki Dubreuil (PSE)  
Miren Nekane Apaolaza (Herritarra)  
Manolo Iturrioz (EAJ)

### Gai ordena

Bileran ondoko gaiak landu ziren:

1. Urtarrila eta martxoko akten onarpena.
2. Sasieta Mankomunitateko Estatutuen ekarpenen erantzuna
3. Landarlanen eskaera:
  - o Ori ibaiaren egoera
  - o Puxiken kutsadura (Atxikita bideo bat duzue)
4. Filipinak 13ko eskaera: zaborraren eremua jatorrizko egoeran jartzeko eskaera
5. Hondakin mahairako aurrekontua: ekimenak
6. Amundarain erreka, Natura 2000ko espazioaren bazterra, hondakinez beteta eta zuhaitzik ez.
7. Gure kaleak, plazak, eskolako patioak..... zaborraz beteta: zer egin???
8. Ordenantza
  - o 4. titulua eta 5. tituluaren lanketa

### Aurreko bi akten onarpena

Urtarrila eta martxoko aktak onartutzat eman dira.

### Sasietako estatutuen ekarpenak

Sasietako estatutuak onartu aurretik, hondakin mahaiak hainbat ekarpen egin zituen. Orain Sasieta Mankomunitatek ekarpen hauek txosten batean erantzun dituzte.

LANDARLAN: Hondakin mahaiak egindako ekarpenak onartu dituzte. Beste nonbaitetik jaso dituzte beste ekarpenak?



## Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2018/06/19 Udaletxean 18.30-20:00



TEKNIKARIA: Joseba eta biok Sasietarekin bildu ginenean beste ekarpen batzuk jaso zituztela esan ziguten, gehienbat herri txikietako ekarpenak.

Gure ekarpenen inguruan, hauetako gehienak estatutuan sartuta daudela esan ziguten baina ez mahaiak esaten duen modu eta sailkapenean, beraiek dagokion legean ezarrita dauden moduan kopiatu dituzte apartatu ezberdinak, legean jartzen duena kopiatu dute.

ORDIZIA ORAIN: Boto ponderatuarena ere onartu dute? Gai honekin konfliktu bat egongo dela iruditzen zaio.

TEKNIKARIA: Estatutuak udalerrri guztiak onartu dituzte, ez da inongo udalerririk kontra azaldu.

ORDIZIA ORAIN: Estatutueta zehazten da udalerrriak 40 egun dituztela beraien udalerrietako ordezkariak izendatzeko eta Ordiziak legislatura honetan hau ez zuen bete.

LANDARLAN: Positiboa izan da guk egindako lanaketa onartu dutela eta erantzun egin digutela.

### Landarlanen eskaerak

#### ORIA IBAIA eta AMUNDARAIN ERREKA

Mahai honetako bilera ezberdinetan Oria ibaiaren garbiketaren gaia landu da, denei asko kezkatzen digun gaia eta ondorioz aurrekontu bat eskatu dugu garbiketa hau egiteko. Ordiziako Oria ibaiko eremua garbitzeko aurrekontua dugu (4.100 € + BEZ) eta guk GFako Agenda 21eko diru-laguntzara aurkeztu dugu proiektua eta finantzatu egingo digute, 1.722,00 €ko diru-laguntzarekin.

Urteroko aurrekontuetan partida bat jarri beharko genuke ibaiaren garbiketa egiteko.

Guk gure aldetik ibaia garbitzea ez du zentzu handirik, garbiketa egin behar zelako Zegamatik behera. Hasiko gara Ordiziako eremua garbitzen eta ondoren ikusiko da zer gertatzen den eskualde mailan.

Beasainek bere langileekin bere kabuz egiten duela esaten du eta Lazkaok enpresa hau ere kontratatzen du garbiketa egiteko errekaren zati batean.

Herritar batek ere ibaiaren garbiketa auzolanean, (elkarte, herritar,.....) egitea proposatu du eta berarekin bilera bat egingo dugu eta bere proposamena mahai honetara ekarriko dugu.

Oria ibaiaren garbiketaren ekimena komunikatu egin behar da herritarrei eta eskualde mailan.



## Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2018/06/19 Udaletxean 18.30-20:00



Diru-laguntza urriaren 31rako justifikatu beharra dago eta garbiketa irailean egingo da.

Amundarain erreka garbiketa aurrekontuan ez dago sartuta eta zati hau txertatuz aurrekontu berri bat eskatuko dugu eta ondoren hondakin mahaiako kide guztiei bidaliko diegu onartzeko.

Ibai bazterretako enpresa eta etxeetara kanpaina bat egin ibaira hondakinak ezin direla bota esanez.

### PUXIKAK

Udaberri fest-en Oiangun globoak bota zituzten eta Landarlanek hau gelditzea eskatu zuen, globoak lurrera erortzen direnean hondakin bat sortzen ari baikara.

Landarlanen eskaera hau baino lehenago Joseba zinegotzia Udaberri fest-eko antolatzaileekin elkartu zen beraien lehenengo proposamena suzko farolak botatzea izan baitzelako eta proposamen honi ezezkoa emateko, sutearen arriskuagatik. Ordun puxikak proposatu zituzten eta Udaletik puxikak biodegradagarriak izatea eskatu zitzairen. Puxikak ondoren jaso egin zituzten. Puxiketatik zintzilik papertxo bat zuten eta ez ziren gehiegi igo, erori zirenean jaso egin zituzten.

LANDARLAN: Puxika biodegradagarriak direla jartzen du baina ez da egia.

Hurrengo urterako beste aukera bat landu beharko da, kontzientziatu behar da ezin dela ezer bota.

Ordiziako ordenantzan gai hau txertatu beharko litzateke, inongo hondakinik ezin dela bota zehaztu beharko litzateke.

Jaietako bileretan tabernariak parte hartzen dute eta plastikozko edalontzien gaia landu beharko litzateke, Sasietako edalontzi berrerabilgarriak eskaini daitezke.

### Filipinak 13 eskaera

Filipinak 13ko bizilagunak edukiontzien puntua mugitzea eskatu dute, beste aldera pasatzea.

Zerbitzutako delegaritzan landu dute eta kaleko ezaugarriak aztertuz hau ezin dela egin esan dute. Delegaritzak ezezkoa esan duenez hondakin mahaiak ere ondo ikusten du ezezkoa.

Kalean eskaera edo kexak badaude, eskaera edo kexa ofizial bat egiteko esan behar zaie ondoren eskaera edo kexa honek bere bidea emateko.



## Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2018/06/19 Udaletxean 18.30-20:00



### Aurrekontua

Hondakin mahairako aurrekontu bat onartu da. Erabaki behar dugu zein ekimen egin dezakegun diru honekin:

- Edukiontzia puntuak oso zikinak daude, lurlean poltsa asko daude. Hezitzaileak jarri daitezke, baina gaian formazioa duten pertsonak izan behar dira. Oarsoaldean antzeko zerbait egin da, bertan langileak biologoak edo antzeko ikasketak dituzten langileak dira.
- Gaikako bilketa tasa jaisten ari da. Galdeketa egin zenean helburua %85ekoa jarri zen.
- Herritar batzuk ez dute gaika bereizten, lurlean uzten dituzte poltsak....
- Auzokonpostako guneen erabilpena bultzatu edo berriak sortu. Sasietatik hilerro jarraipen bisita bat egiten da eta Udalari txosten bat bidaltzen zaio lanak zehaztuz. Auzokonpostan parte hartzen duten kideei lehen Sasietatik informazioa bidaltzen zitzairen baina aspaldi honetan ez dute bidali. Sasietari honen berri eman.

### KONPOSTGUNEAK

Konpostguneek estalperik ez dutenez, aurtengo negu eta udaberriarekin, konpostagailuak hermetikoak ez direnez ur asko sartu da barrura. Konpostaren prozesua moteldu egiten da.

Bisitak egin daitezke konpostguneetara, Landarlaneko Edurne prest dago bisita hauetan azalpenak emateko.

### ZIGARRO KOLILLAK

Zigarro kolillak lurrera botatzen dira, honekin kanpaina bat egin beharko litzateke.

### ORDIZIA ORAIN

- Diru ekarpena

200.000 €ko diru ekarpen bat sartu dugu hondakin mahairako, dirua ez badago ezin baita gauza askorik egin.

Hezitzaileak beharrezkoak dira, edukiontzia puntuetan arazo asko baitaude, poligonoan, Trebijanon, Eroskin, .....

Gure helburua, organikoaren kudeaketa Ordizian bertan egitea da. Sistematik ateratzen da hondakin hau eta ez da ordaintzen bere tratamenduagatik.

### EDUKIONTZIEN GARBIKETA

Edukiontzia usai oso txarra dutela esaten dute.



## Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2018/06/19 Udaletxean 18.30-20:00



HONDAKIN FITOSANITARIOAK: Osakidetzatik etortzen dira biltzera.

### Kaleak zikinak kanpaina

Eskola Agenda 21eko kexa bat egon da, ikastetxe inguruak, patioak..... oso zikinak daude. Urdanetak iluntzeko 20:00etan patioako atea ixtea eskatu du. Probatu daiteke atea ixten eta gero ikusiko da zer gertatzen den.

Plaza, Barrena kanpokaldea, Lukusin plaza, estazio azpikaldea..... lurra zikinez beteta daga, kanpainak egin beharra daude. Plaza inguruan gurasoak egoten dira baina ez dute ezer esaten.

Asteburu batzuetan zona hauek garbitu gabe utzi beharko zen, ikusteko zein zikinak garen. Ostiral gauean dena zikina geratzen da baina hurrengo goizean dena garbituta ikusten dugu.

Gai hau ezin da lokalizatu umeen gain, helduak ere sartu behar dira. Kanpaina denentzat izan behar du.

Elkarteek ekimenak antolatzen dituztenean, esan behar zaie utzi behar dutela hartu zuten bezala.

### Ordenantza

Ordenantzako lanketa Joseba eta Rosak bukatuko dute eta hondakin mahaiko kide guztiei bidaliko zaie beraiek beraien aldetik lantzeko.

### Hurrengo bilera

Irailean egitea aurreikusten da.